



## ARBITRAJE-IKASTAROAREN DEIALDIA

Euskal Karate Federazioak, Arbitraje Sailaren bidez, ikastaroaren deialdia egin du, 2025ko urtarrilaren 25erako, Katako epaile, Katako B epaile nazional, Kumiteko eskualdeko arbitro, Kumiteko B arbitro nazional eta epaile kronometratzaile titulua lortzeko, baita orain arte emandako titulazioak eguneratzeko ere.

### **ESKAKIZUNAK**

Eskualdeko arbitroa / Eskualdeko epailea

- 18 urte
- 1. Dan
- Argazkia (lizentzia-fitxan egon beharko du)
- FVK/EKF 2025 lizentzia
- Eguneratze-kuota: 45 €
- Bi titulazioetarako inskripzio-tasa: 75 €.
- Titulazio bakar baterako inskripzio-tasa: 50 €.

B mailako arbitro nazionala / B mailako epaile nazionala

- 22 urte
- 2. Dan
- FVK/EKF 2025 lizentzia
- Urtebeteko antzintasuna arbitro / eskualdeko epaile gisa
- Eguneratze-kuota: 45 €
- Bi titulazioetarako inskripzio-tasa: 100 €.
- Titulazio bakar baterako inskripzio-tasa: 75 €.

Epaile kronometratzailea

- 18 urte
- Gerriko marroia
- Argazkia (lizentzia-fitxan egon beharko du)
- FVK/EKF 2025 lizentzia
- Izena emateko kuota: 45 €

**Izena emateko epea urtarrilaren 20an amaituko da. Ordainketa [www.karateeuskadi.eus](http://www.karateeuskadi.eus) plataformaren bidez baizik ezin izango da egin.**

*Ohar argigarria: Izangai berriek edo eguneraketa galdu dutenek lizentzia izan beharko dute, kirolari edo teknikari izateagatik, prestakuntza amaitu ondoren; era berean, epaile- / arbitro-lanak bete ahal izateko, epaileen estamentuaren lizentzia eduki beharko dute.*

*Eguneraketa nahi duten izangaiek epaileen estamentuaren lizentzia izan beharko dute, eta, hori gorabehera, beste estamentu batzuenak eduki ahal izango dituzte.*

## **UNIFORMEA**

Teoria eta praktika: Kata eta Kumitea, arbitrajeko arauzko uniformea.

Kata: Karate-gi (soilik titulazioa lortzeko izangaia)

Nahitaezkoa da; bete ezik, kanpoan utziko da eta ezinezkoa izango da bertan egon.

## **EGUNERAKETAK:**

Euskal Federazioan egindako eguneraketek hiru urteko balioa dute, eta ezinbestekoa da osorik egitea, azterketak bezala (kata izan ezik).

Azken hiru urteetan eguneraketarik egin ez duten epaileek / arbitroek ikastaro osoa egin beharko dute, azterketa teorikoak eta praktikoak barne. Tituludun berriek bezala ordainduko dituzte tasak.

## **NON EGINGO DEN**

Teoria: **BASQUETEAM ZENTROA**  
Fadura, Getxo - Bizkaia

Praktika: **BASQUETEAM ZENTROA**  
Fadura, Getxo - Bizkaia

## **ORDUTEGIA:**

### **Urtailaren 25a:**

10:00etatik 14:00etara

Kata eta Kumiteko araudia irakurtzea eta aztertzea.

Azterketa idatzia (1. deialdia)

16:00etatik 19:00etara  
Kata / Kumiteko praktikak

19:00etatik 19:30era  
Kataren azterketa praktikoa (Karate-gi) (1. deialdia), eguneraketak izan ezik.

### **Otsailaren 8a:**

16:30etatik 19:00etara  
Kata / Kumiteko praktikak  
Azterketa idatzia (2. deialdia) 15:30 etatik 16:30etara  
Kataren azterketa praktikoa (Karate-gi) (2. deialdia), eguneraketak izan ezik.

### **Martxoaren 30a:**

Azterketa praktikoa Euskadiko txapelketa ofizial federatuan.

Nahitaezkoa izango da titular izan edo eguneraketa lortu nahi duten izangaiantzat:

- Urtailaren 25ean saio teoriko eta praktikora joatea, eta kataren azterketa teorikoak eta praktikoak egitea.
- Kata / Kumite praktika guztietara joatea.
- Lehenengo deialdian gai ez diren izangaiek bigarren deialdiko azterketak egingo dituzte.
- Azterketak ez gaitzitezatik edo praktiketara gaitz ez jotzeagatik, ez gai kalifikazioa lortzen duten izangaiek ez dira azterketa praktikora joango Euskadiko Txapelketa Ofizial Federatuan.

Txapelketa amaitu eta batzordeak Tatami Manager-en txostena aztertu ondoren, Arbitraje Batzordeak emaitzen akta argitaratuko du FVK/EKFren webgunean, eta hautagai guztiei jakinaraziko zaie.

Etorriko zarelakoan, adeitasunez, agur.

Presidentea FVK-EKF

Zuzendari teknikoa FVK-EKF

